

Emakumeak eta nekazaritzalana Egipto erromatarrean: ebidentziak eta isiluneak

Goizane Urrutia Gutierrez
Doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Ikerketa historiografikoak Antzinateko emakume nekazariaren irudia baztertzeko joera izan du, neurri batean testigantza zuzenen urritasunagatik. Testuinguru horretan, K.a. I. eta K.o. III. mendeen arteko Egipto erromatarra aparteko eszenatoki gisa agertzen da, kontserbatutako papiroen ugaritasunari esker, batik bat. Hala ere, dokumentu horien azterketa xeheak paradoxa esanguratsua agerira ekartzen du: lurren jabe edo errentatzaile gisa agertzen diren emakumeak ugariak diren bitartean, ia ez dago nekazaritza-lanetan zuzenean parte hartu zutenen ebidentzia espliziturik. Egoera horren aurrean, «isiltasunaren» irakurketa kritikoa ezinbestekoa da, inferentzia kontrolatuz baliatuz eta beste iturri historiko batzuk, ikonografikoak eta literarioak, kasu, alderatuz. Behin betiko erantzunak eskaini baino gehiago, artikulua honek iturrien interpretazio-mugak birpentsatzera eta Antzinateko emakumearen lanari buruzko ideia tradizionalak zalantzan jartzera gonbidatzen du.

GAKO-HITZAK: Egipto erromatarra · Papirologia · Emakumeak · Nekazaritza.

Women and Agricultural Labour in Roman Egypt: Evidence and Silences

The figure of the female farmer in Antiquity has long been overlooked in historical research, in part due to the scarcity of direct testimonies. In this regard, Roman Egypt between the 1st century BCE and the 3rd century CE offers an exceptional case study, owing to the remarkable abundance of preserved papyri. Yet, a close reading of these documents exposes a striking paradox: although numerous women appear as landowners or lessors, there is little to no explicit evidence of their direct engagement in agricultural labour. Addressing this silence requires a critical research methodology that combines controlled inference with evidence drawn from iconographic and literary sources. Rather than providing conclusive answers, this article aims to reconsider the interpretative limits of the available sources and invites to challenge prevailing narratives regarding women's work in Antiquity.

KEY WORDS: Roman Egypt · Papyrology · Women · Agriculture.

1. Emakumearen parte-hartzea nekazaritzan K.a. I. eta K.o. III. mendeetako Egiptoko papiroetan

Egipto¹ Antzinateko biztanleen eguneroko errealitatea ezagutzeko eszenatoki aproposenetako bat da, beraren gizarte eta kulturaren aberastasuna dela eta, baina bereziki kontserbatutako iturri arkeologiko, ikonografiko eta idatzi ugariei esker. Azkeneko horiei dagokienez, Nilo ibaiak zeharkatutako lurralde honetan Antzinateko beste edozein lekutan baino papiro gehiago kontserbatu dira, munduko % 99 inguru (Yiftach-Firanko, 2020, 8. or.). Papiro horiek Nilo haraneko eta inguruko basamortuetako klima-baldintza mesedegarriari esker biziraun dute; izan ere, bertako hezetan txikiak eta tenperatura egonkorrek material organiko honen biziraupena ahalbidetu dute (Montevecchi, 1988, 24-26. or.). Zalantzarik gabe, garairik emankorrenetako bat erromatarren mendeko lehen hiru mendeak dira, ez bakarrik papiroen kopurua ia paregabea delako, baita ere haien uniformetasunagatik eta etapa horretan Erromatar Inperioak kontrolatutako lurraldeetan nagusitutako egonkortasun politiko eta administratiboagatik (Rowlandson, 1996, 6. or.). Horrek guztiak azterketa historiko koherenteagoa eta zehatzagoa ahalbidetzen duela aintzat hartuta, hurrengo orrietako ikerketa garai horretan kokatuko dugu nagusiki. Papiro mota askotarikoak kontserbatu dira, hala nola literatura-lan klasikoak, gramatika-tratatuak, musika-partiturak edota zientzia eta matematikako idazkiak. Hala ere, lan honi begira interes handiena dutenak agiri-papiroak ('documentary papyri') dira. Testu praktikoak dira, eta ekintza pribatuak —kontratuak eta gutunak, adibidez— edo ekintza publikoak —administrazio-xedapenak eta komunikazio ofizialak, adibidez— jasotzen dituzte, eguneroko bizitza eta estatuaren antolaketa islatuz (Palme, 2011, 361. or.). Gehienak grezieraz idatzita daude, administrazioaren eta elitearen hizkuntza izan baitzen ptolomeotar eta erromatar garaietan zehar (Van Minnen, 2011, 644. or.; Dickey, 2011, 158. or.). Bestalde, papiroen banaketa zabala bada ere, ez da erabat homogeneoa, Alexandriako papiro gehienak galdu egin baitira; berriz, Delta hegoaldeko barruti administratiboak, hots, hermopolitar, herakleopolitar, oxirrinkotar eta arsinoitar *nomoiak*², zonarrik aberatsenak izan dira (Bagnall, 2011, 44. or.; Yiftach-Firanko, 2020).

Papiroek duten balioa gertakari eta pertsona historikoekiko duten hurbiltasunean datza, esan dugun ugaritasun eta kontserbatu izanaz gain. Gainera, eguneroko harremanak eta praktikak lehen eskutik behatzeko aukera ematen dute, Egipto erromatarreko gizartea eta haren dinamikak ulertzeko ezinbesteko elementu bihurtuz. Hau bereziki garrantzitsua da emakumeen kasuan, Antzinateko iturri historiko gehienak —literarioak nahiz epigrafikoak— gizonen idatzitakoak baitira eta emakumeen presentzia nabarmen alboratu edo idealizatu baitute, askotan haien

1. Izenburuan eta testuan zehar «Egipto erromatarra» lokuzioa erabili da erromatarren mendeko probintziari buruz hitz egiteko.

2. *Nomos* bat (pluralean *nomoi*) Egiptoko lurralde-antolaketa-unitate administratibo garrantzitsuena zen. *Nomos* bakoitzak zenbait herririk eta metropoli izeneko hiri nagusi bat hartzen zituen bere baitan. Erromatarren garaian, hiri horiek nolabaiteko autonomia administratiboa lortu zuten, nahiz eta gobernu zentralaren ikuskaritzapean jarraitu. *Nomosa strategos* batek zuzentzen zuen, estatuko boterearen tokiko ordezkari gisa jarduten zuen probintziako eliteko funtzionario zibila. Berarekin batera *basilikos grammateusa* (errege-idazkaria) ari zen lanean, batez ere *nomosen* finantza-arazoez arduratzen zena (Lewis, 1983, 16. or.; Herklotz, 2012, 16. or.; Jördens, 2012, 58. or.).

jarduera publiko eta ekonomikoak baztertuz edo diskurtso moralistetan kokatuz (Finley, 1968, 148. or.; Culham, 1987, 15. or.; Pomeroy, 91, 265-266. or.; Dixon, 2001, 21. or.; Fuentes Santibáñez, 2010, 10. or.; Pedregal Rodriguez, 2011, 128. or.; Cid-López, 2015, 47-9. or.). Papiroek, berriz, ikuspegi zuzena eskaintzen dute eta, horri esker, batzuetan, emakumeek ekonomian eta gizartean bete zuten rola xehetasun handiz azter daiteke. Hots, antzinako emakumeen pentsamendu eta ahotsa modu objektiboagoan ezagutzeko aukera ematen dute noizbait, gizonek iragazi gabe.

K.o. II. mendearen amaiera aldera, Diogenis emakume lur-jabeak Didimo izeneko gizonari idazten zion Alexandriatik (Bagnall eta Cribiore, 2006, 349. or.). Didimo bere agindupeko langilea edo jabetzen administratzailea zen ziurrenik eta, gutunean, berarentzat lan egiten zuen nekazari batek bere lurretatik erauzitako ongarria zegoen lekuan uzteko eta bera iritsi arte ezer ez egiteko agintzen zion (*P. Oxy. XIV 1758*)³:

3. Lan honetan agertzen diren papiroei buruzko erreferentziak ohiko arau akademikoak betetzen dituzte: bildumaren izen laburtua, liburukiaren zenbakia (zenbaki erromatarretan) eta bolumen horren barruko dokumentuaren zenbakia (zenbaki arabiarretan). Horrela, adibidez, *P. Oxy. XIV 1758*-k *The Oxyrhynchus Papyri* bildumako XIV. liburukiko 1758. papirora igortzen du, Oxirrinkoko aztarnategiko testu papirologikoen bilduma zabal eta garrantzitsuenetakoa. Greziar eta erromatar garaietako papiroen bilduma nagusien artean, *P. Oxy.-z gain (The Oxyrhynchus Papyri)*, *P. Tebt. (The Tebtunis Papyri)*, *BGU (Berliner griechische Urkunden)*, *SB (Sammlung der griechischen Urkunden aus Ägypten)* edo *PSI (Publicazioni della Società Italiana per la ricerca dei papiri greci e latini in Egipto)* daude, besteak beste. Papiroen edizio hauetan jatorrizko testuaren transkripzioa, datazioa, iruzkin filologiko eta historikoak, eta euskarriari eta testuinguru arkeologikoari buruzko xehetasunak eskaintzen dira. Kasu batzuetan, itzulpenak eta beste dokumentu batzuekiko loturak ere jasotzen dituzte. Liburutegi akademikoetan daude eskuragarri, eta, askotan, linean kontsulta daitezke datu-base espezializatuen bidez, hala nola *Papyri. info* edo *Trismegistos*, dokumentu askoren edizioetarako, itzulpenetarako eta metadatu etarako sarbide irekia eskaintzen duten datu-baseak, hain zuzen ere.

Ro	Διογενὶς Διδυμῶ τῷ τιμωτάτῳ πλείστα χαίρειν. πρὸ παντὸς εὐχομαί σε ὑγιαί- νειν μετὰ τῶν ἀβασκάντων σου παιδίων, καὶ τὸ προσκύ- νημα ὑμῶν ποιῶ παρὰ τῷ μεγάλῳ Σαράπιδι εὐχομέ- νη σοὶ τὰ κάλλιστα πανοικεῖ. κα- λῶς ποιήσεις κατεγνήσας τὸν χοῦν ὃν ἐξέσκαπεν Ἄ- τρῆς ὁ γεωργὸς ἀπὸ τῶν ἐδαφῶν μου, καὶ μὴ ἄφιε ἐποικοδομησῶν ἕως ἄν παραγένωμαι. μελέτω σοὶ δὲ καὶ περὶ ὧν ἄλλων ἔχω παρὰ σοὶ μετεώρω[v] ἐπι- σχεῖν, ἵνα μὴ εὐκατ[α]φ[ρ]όν[η-] τος γένομαι διὰ τὴν [ἀμέλει-] άν μου. ἀσπάζομ[αι πάντας]	Diogenis ek Didimo zintzoenari, agurrak. Lehenik eta behin, otoitz egiten dut ondo egon zaitezzen, zure seme-alabekin batera, begiko gaitzetik libre. Serapis Handiaren aurrean gurtzen zaitut, zure etxe osorako onena eskatuz. Ondo egingo duzu nire nekazaria den Hatresek nire soroetatik ateratako lurra jarri ahalko bazenu, eta ez utzi inolako lanik egiten ni iritsi arte. Zaindu bukatu gabe utzi dudan bestea ere, nire arduragabekeriagatik baztertua izan ez dadin. Agur atsegin zaizkizun guztiei. Eman Didimori.
4		
8		
12		
16		
20		
Vo	ἀπόδο(ς) Διδυμ[ῶ].	

Diogenis, emakumea izan arren, erromatar garaiko *matrona* onaren iruditik urruntzen zen, teilapean babestua eta etxeko lanak egitera behartua. Izatez, Katon Zaharrak K.a. II. mendeko nekazaritzari buruzko tratatueta deskribatzen zuen *paterfamilias* nekazari eta lur-jabearen erretratu bizia zirudien:

Pater familias ubi ad villam venit, ubi larem familiarem salutavit, fundum eodem die, si potest, circumeat; si non eodem die, at postridie. Ubi cognovit, quo modo fundus cultus siet operaque quae facta infectaque sient, postridie eius diei villicum vocet, roget, quid operis siet factum, quid restet, satisne temperi opera sient confecta, possitne quae reliqua sient conficere, et quid factum vini, frumenti aliarumque rerum omnium (Katon, *Agr.*, II, 1)⁴.

Diogenis ez da kasu isolatua K.a. I eta K.o. III. mendeetako Egiptoko papiroen artean, ondasunen kudeaketan antzeko parte-hartzea duten beste emakume batzuen adibideak baitaude (adib.,: *P. Oxy.* VI 932, K.o. II; *P. Oxy.* XXXIII 2680, K.o. II-III; *P. Col.* VIII 212 = *SB V* 7659, K.o. 49; *P. Ryl.* II 243, K.o. II; *P. Mich.* VIII 464, K.o. 99). Gutun hauetan dokumentatutako andre ahaltsuek ezin hobeto ulertzen dituzte beren lur-jabetzen beharrak eta eskualdeko nekazaritza-merkatuaren dinamikak; halaber, haien langileak ezagutzen dituzte eta une oro egin behar diren lanen eta jardueren jakinaren gainean daude. Hori dela eta, gutunetan jarraibide zehatzak eta teknikoak luzatzeko gai dira; beste zenbaiten artean, neurketak egiteko eta depositu eta kuota publikoen ordainketen berri emateko agintzen dute, animalien salmentak

4. «*Pater familias*, *villara* iristen denean eta familiaren *lara* agurtzen duenean, egun berean, ahal badu, landa-ingurutik ibil dadila; egun berean ez bada, biharamunean. Jabetzen denean nola zaindu den landa eta zer lan eginda edo egiteko dagoen, hurrengo egunean *villicusa* dei dezala eta galde diezaiola zer lan egin den eta zer geratzen den, lanak garaiz amaitu diren, falta direnak amai daitezkeen eta zer egin den ardoarekin, gariarekin eta beste gauza guztiekin».

zuzentzen dituzte edota gurpil hidraulikoen funtzionamenduari buruzko argibideak ematen dituzte.

Papiroen banaketa-erregulartasunik eza dela eta, ezin dugu ziurtatu zenbat ziren horrelako emakumeak, baina existitu zirela zalantzarik gabe baieztatu dezakegu. Emakume lur-jabearen figura neurtzeko aukera handiagoak daude eta badira zenbaki zehatzagoak ematen saiatu direnak tokiko eta eskualdeko ikerketa historiografikoak baliatuz. Arsinoitar *nomosean*, El Fayumeko herrixken artean, K.o. I. mendeko Tebtunis oso aproposa suertatu da helburu horretarako; izan ere, bertan, nekazaritza ekonomiaren ardatzetako bat zen eta bere *grapheioneko*⁵ dokumentu talde nabarmen bat kontserbatu da. «Tebtuniseko erromatar *grapheionaren* artxiboa», K.o. 7tik K.o. 56ra bitarteko 200 papiroak baino gehiagok osatzen dute; horien artean garrantzitsuenetarikoak *P. Mich.* II 121, *P. Mich.* II 123 eta *P. Mich.* V. 238 dira. Papiro horiek K.o. 42. eta 46. urteen artean bulego horretan erregistratutako transakzio guztien —1.200 inguru— ohar xehatuak dituzte; hau da, herrikka horretan urte horietan gauzatu ziren negozio gehienen berri ematen digute, bertan erregistratu zirelako (Boak, 1933; Husselman, Boak & Edgerton, 1944; Hobson, 1984, 373-377. or.). Egindako kontratu motei, kontratugileei eta kontratuaren objektu espezifikoari buruzko informazioa eskaintzen dute, eta, kasu batzuetan, baita adostutako diruari buruzkoa ere. Datu zehatz eta egonkor horiei esker, jarduera-zerrenda luze horietan emakumeak zer maiztasunez eta zein baldintzatan agertzen ziren zehaztu ahal izan da, eta, beraz, emakumeek herrixkako bizitza ekonomikoan zuten paperari buruzko ondorio kuantitatiboak proposatu ahal izan dira. Halatan, badirudi emakumeak bertako hiri-ondasunen —etxebizitzak, batez ere— % 20-30en jabe izan arren, ehuneko hori % 5-11 bitartera murrizten zela nekazaritza-lurren kasuan (Hobson, 1984, 377-390. or.; Melaerts, 2002, 217-224. or.).

Oxirrinkotar *nomoseko* datuek, berriz, irudi baikorragoa eskaintzen dute. Eskualde horretako papiroek, batez ere, alokairu-kontratu motakoek, baina baita salerosketa-agiriekin, jabetza-erregistroek edota ordainketa-zerrendek ere, fluktuazio kronologiko eta tipologiko txikiak gorabehera, lur-sailen % 20-30 bitartean emakumeen esku zegoela iradokitzen dute (Urrutia, 2024, 100-102. or.). Hala ere, tentuz ibili behar da zifra horiekin. Eskualde horretako dokumentazioa Oxirrinko metropolia inguratzen zuten zabor-biltegietatik datorrenez batez ere, hirietako populazio aberatsagoa gain-aurreztuta dago; aldiz, herrixketatik zetozenak maiz analitiko kanpo geratzen dira (Turner, 1952, 80. or.; Rowlandson, 1996, 3. or.; Coles, 2007, 3. or.; Bowman, 2007, 180. or.).

Ordea, papiroetan emakume nekazarien presentzia arakatzea basamortuko hanean itzala bilatzea bezala da. Nekazarien generoa identifikatzeko dokumenturik egokienetarikoak lursailen alokairu-kontratuak dira. Egipto erromatarrean, Italiako latifundio handietan ez bezala (Jones, 1974, 773-803. or.; Garnsey eta Seller, 1991, 89-92. or.), esklaboak gutxi erabili ziren, eta errentamendu bidezko sistema hautatu zen nagusiki lurak lantzeko; harrezkero, ondasunak, tamaina txikiko lursail pribatuak normalean, epe laburreko alokairuen bidez ustiatzen ziren (Rowlanson,

5. Dokumentu legalak eta administratiboak idatzi, erregistratu eta artxibatzeaz arduratzen zen tokiko bulego publikoa (Pierce, 1968).

1996, 202-279. or. eta 1999, 139-158. or.; Bowman, 2013, 225. or.; Kehoe, 1992, 199-167. or.; Johnson, 1936, 74-145. or.; Herrmann, 1958; Martin, Richter, Rowlandson, Takahashi eta Thompson, 2014). Errentamenduek abantaila ugari eskaintzen zizkieten jabeei beren lurretatik etekina ateratzeko orduan. Kokapenaren oztopoa gainditzea ahalbidetzen zuten; izan ere, askotan, eta bereziki hiriguneetako biztanleen kasuan, lursailak beren bizilekutik urrunegi egoten ziren. Faktore hori are garrantzitsuagoa zen emakumeentzat; izan ere, nahiz eta beren etxeetan egotera behartuta ez egon eta emakume bidaiarien kasuak dokumentatu izan diren, mugitzeko zuten askatasuna gizonena baino txikiagoa zen (Goñi-Zabalegui, 2019, 173-193. or.). Era berean, inbertsio- zein ustiapen-kostuak nabarmen murrizten ziren eta jabeek diru-sarrera egonkor eta segurua lortzen zuten, zati batez edo guztiz bizi ahal izateko adinakoa (Rowlandson, 1996, 271. or.).

Ustiapen-sistema horren hedapenagatik, eta akordio gehienak bat eta lau urte bitartekoak zirelako, oso ugariak dira mota horretako dokumentuak lurraldean. Baditugu ehunka alokairu-kontratu, errenta ordaindu izanaren frogagiriak, edota errentamenduekin lotutako arazoengatik inguruko eskaerak. Horrelako agiriek xehetasun ugari ematen dituzte, besteak beste, lursailaren deskribapen fisiko laburra, kontratuaren iraupena eta datak, landu beharreko uzta mota, errenta kopurua edota hitzarmena errespetatzeko erabakitako bermeak eta zigorrak (Rowlandson, 1996, 142. or.). Baina artikulu honetan lantzen ari den gaiari begira, ezaugarri garrantzitsuena da, normalean, dokumentu horiek partaideen izenak ezagutarazten dizkigutela; hots, lursaila alokatu eta, teoriarik, landuko zuen nekazariaren identitatea eta generoa eskaintzen dizkigute.

Dokumentu horiek aztertzean, emakume errentatzaileen eta errentarien arteko bereizketa nabarmena da: lehenengoak ohikoak diren bitartean, bigarrenak ia ez dira agertzen. Oxirrinkotar *nomosean*, esaterako, K.a. I. eta K.o. III. mendeetako papiroen artean, behintzat, lursail pribatuaren 43 andre errentatzaile identifikatu dira (Urrutia, 2024, 143-146. or.). Errentariei dagokienez, berriz, zalantzazko bizpahiru kasu baino ez dira ezagutzen. *P. Oxy. XVII 2141*ean (K.o. 208), Kyrilla izeneko emakume batek Hierakiaina izeneko beste bati, akaso bere maizterra izan zitekeenari, lbion eta Takonako lur batzuen gaineko errentak ordaintzeko argibideak ematen zizkion. Zalantzazko lekukotasun hauetatik harago, ez dugu emakume maizterren ebidentzia gehiagorik *nomos* honetan K.o. V. mendearen erdialdera arte. *P. Oxy. VI 913*an (K.o. 443), andre bat lursail baten bi maizterretako bat bezala agertzen da; sailaren jabea, kasualitatez, emakumea ere bada (Rowlandson, 1996, 263). Beste eskualdeetan lekukotasunak ere oso eskasak dira. Tebtunisen, K.o. 45/6. urteko *grapheioneko* erregistroan (*P. Mich. III 123*), Rowlandsonek (1999, 154-55. or.) bederatzi emakume errentari identifikatu zituen. Hala ere, gutxienez sei kasutan, errentamendu-kontratu prodomatikoak ziren. Horrelako alokairu-akordioetan errenta alde aurretik ordaintzen zen eta, berezitasun hori dela eta, jarduera horiek ezkutuko maileguei zegozkiela argudiatu izan da, eta ez benetako alokairu-kontratuei. Horrela balitz, errentarien eginkizuna ez litzateke nekazariena izango, mailegatzaileena baizik. Berez, sei testigantza horietatik bost emakume berari buruzkoak ziren, Didyme, erregistro bereko beste sarrera batzuetan, gainera, mailegu-emaila gisa agertzen zena (*Id.*).

Lur publikoen ustiapenean antzeko egoera antzematen da. Egipto erromatarreko lurren erregimena, berez, askoz konplexuagoa zen arren, lur pribatuen (*idiotikê gê*) eta publikoen (*dêmosia gê* edo *basilikêgé gê*) artean bana daiteke, zuzenbide erromatarreko *ager priatus* eta *ager publicus* direlakoan arteko bereizketaren antzera (Rathbone, 2013, 83. or.). Lur pribatuaren jabeak partikularrak ziren eta haren ezaugarri nagusia errenta edo tasa txikiagoa, *artaba*⁶ batekoa, oro har, ordaintzea eta libreki alienatu ahal izatea zen. Lur publikoa, pribatua bezala, errentamendu-sistemaren bidez ustiatu zen nagusiki, baina jabea estatua zen eta ordaindu beharreko errenta askoz altuagoa zen, % 20 edo % 50 bitartekoa, hain zuzen ere (Rowlandson, 2005, 175. or.).

Aipatzekoa da, lur pribatuarekin alderatuz, K.o. I. mendearen erdialdetik K.o. III. mendearen amaierara arte, hainbat emakume lursail publikoen errentariak izan zirela. Zehazki, oxirrinkotar *nomosean*, errentarien sexua bereiz zitekeen 67 kasuetatik 55 (% 82) gizonetzkoak ziren eta 12 (% 18) soilik emakumezkoak (Rowlandson, 1996, 97. or.). Hortaz, emakumeak kategoria horretan bitxikeria ez baziren ere, haien kopurua askoz txikiagoa zen lur pribatuaren jabetzarekin alderatuta.

Dokumentazioan errentari horiei *demosioi georgioi* edota *basilikoï georgioi* deitzen zaie, 'nekazari-publiko' edo 'errege-nekazari' gisa itzul daitezkeenak, hurrenez hurren. Esanahi hori aintzat hartuta, eta *georgoi* horietako batzuk emakumeak zirenez, pentsa liteke Egipton emakume batzuek aktiboki parte hartu zutela lur publikoen laborantzan, hau da, nekazariak zirela. Hala ere, Egipto erromatarreko testigantzen eta lur publikoen sistemaren funtzionamenduaren azterketa sakonagoak zalantzan jartzen du uste hori.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da hainbat «nekazari» publiko beren alokairupeko lur publikoetatik urrun bizi zirela. Dokumentazioan identifikatutako zenbait errentari Alexandrian, Egiptoko beste greziar *poleisetan* edo metropolietan bizi ziren. Hori da, beste hainbaten artean, Horigeneia *astéaren* (greziar hiritarraren), kasua. Emakume horrek, K.o. 204. urtean, 1 eta 3/4 *aroura*⁷ lur publiko erregistratu zituen Antipera Pelatik hurbil, hau da, bere egoitzatik urrun (*P. Col. X 272 = SB XX 14312 = Delia, BASP 29 (1992), 25-30*). Lurren kokapenarekiko distantzia erronka garrantzitsua da, halabeharrez, lur horiek emakume horiek bere landu zituztelako ideari eusteko. Gainera, horietako batzuek, lur publikoak ez ezik, landa-eremu pribatu zabalagoak zituzten beren kontrolpean. Petosirisen alaba zen Dionysia izeneko emakume batek, esaterako, K.o. I. mendearen amaieran 40 *aroura* pribatu zituen bere jabetzapean, 3 eta 1/8 *aroura* publikorekin batera, eta, ziur aski, lursailaren tamainagatik, berak ez zituen landuko (*P. Princ. II 42*). Are gehiago, andre horietako batzuk elitekoak ziren. Kalpurnia Herakleiak, Alexandriako lur-jabe ospetsuak, K.o. 245. urtean, 1.700 *arouraz* osatutako lur-hedadura harrigarria aitortu zuen. Horren artean, zati txiki bat, 14 eta 1/2 *aroura*, baino ez zen publikoa (*P. Oxy. XLII 3047*). Zaila da aberastasun-maila horretako dama dotore bat bere eskuekin nekazari-lanak egiten imajinatzea.

6. Zerealen neurri lehorra: 38,78 litro = 30,2 kg gari eho (Bowman, 2013, 247. or.).

7. Lurra neurtzeko unitatea, 2.750 m²-ren baliokidea (Bowman, 2013, 247. or.).

Bigarrenik, lur publikoen azpierrentamendu-kontratuen berri dugula azpimarratu behar da (adib.: *PSI* IX 1029, K.o. 52/53; *P. Oxy.* IV 730 K.o. 130; *P. Oxy.* IV 810, K.o. 134-135; *SB* XII 11081 = *P. Oxy.* LXVII 4595, K.o. 261). Akordio horiek agerian uzten dute *demasioi georgoi* direlakoek, hau da, nekazari publikoek, ez zituztela beti beren alokairupeko lurak zuzenean ustiatzen, baizik eta maiz azpierrentan jartzen zituztela eta hirugarrenek lantzen zituztela. *P. Oxy.* LVII 3903=3904n eta *P. Oxy.* LVII 3908=3909n, K.o. 99an gari-hazien eskaera bat dokumentatzen da, lursail publiko jakin batean erabiltzeko helburuarekin. Lursailaren titularra Thatres, Diogenesen alaba, izeneko emakume bat zen. Hazi-eskaera, berriz, hiru gizonek gauzatu zuten, horien artean lursail publikoaren bi azpierrentariek. Hirugarrena Diogenesen semea zen Pekusis izeneko gizonezkoa zen. Azkeneko horri dagokionez, ez dago argi zein harreman zuen lurrarekiko, azpierrentariekiko edo Thatresetikiko. Hala ere, Pekusisek eta Thatresek patronimiko bera zutenez, litekeena da anai-arrebak izatea (Rathbone, 1992, 42. or.). Beraz, lekukotza horrek erakusten du emakume batzuek nahiago izan zutela beren errentamendu publikoak azpierrentan ematea, lurak lantzeko zamatik aske, eta, gainera, inguruko gizonek hartu zutela haiek kudeatzeko eta ikuskatzeko ardura. Eredu hori lur-errentamendu pribatuetan ere ikus daiteke, senarrek maiz beren emazteak ordezkatzeko baitzituzten alokairu-kontratuetan eta errentatzaile gisa jarduten baitzuten, nahiz eta emazteak izan lursailen jabeak.

Hirugarrenik, aipatu behar da emakumeak lur publikoaren derrigorrezko errentamendutik salbuetsita zeudela. Egipto erromatarrean, K.o. I. mendearen amaieratik, lursail publiko txikiak jabetza pribatuei lotzen hasi zitzaizkien nahitaez, eta jabeak haiek lantzerako edo, gutxienez, zergak ordaintzera behartuak izan ziren. Lur horiek, maiz, kalitate apalagokoak ziren, eta estatuak horrelako mekanismoetara jotzen zuen galerak saihesteko. Legez ez zegoen inolako eragozpenik emakume batek lur publikoak errentan hartzeko. Hala ere, erromatarren garaian behintzat, emakumeak horretara behartzea eragozten zuten hainbat arau-xedapen eman ziren, hala nola Tiberio Julio Alexandro prefektuaren ediktu bat eta Valerio Eudaimon prefektuaren eta Minizio epistrategoaren erabaki bana (*P. Oxy.* VI 899 = *M. Chr.* I 361, 28-31. l.). Izan ere, Apollonari izeneko emakume batek K.o. III. mendearen hasierako eskaera batean adierazten zuenez, «... gizonak dira zeregin horretarako pertsona egokiak» (*P. Oxy.* VI 899 = *M. Chr.* I 361, 18. l.: «... ἀνδράσι γὰρ ἔοικεν τὰ τῆς γεωργίας»).

Aztertutako faktoreek agerian uzten dute emakumeen egoera konplexua, lur publikoaren errentamenduei dagokionez. Egia da zenbait emakume K.o. I. mendearen erdialdetik K.o. III. mendearen amaierara arte lur horien ustiapenarekin lotuta egon zirela, baina eskura ditugun ebidentziek, emakume horiek nekazaritza-lanak gauzatzen zituztela onartu aurretik, zuhur jokatzera bultzatzen gaituzte. Hare gehiago, kasu askotan, aukera hori baztertu egin behar da.

Bestalde, emakumezko nekazarien gabezia aurreko garaietatik datorren joera dela dirudi. Pomeroyk (1984, 148-160. or.), ptolomeotar garaiko dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi zuen andreek lurak eduki eta errentan hartzeko aukera izan arren, aukera hori faktore legal, sozial eta kulturek oso mugatua zegoela. Garai horretan, ptolomeotar erregeek ezarritako lur-errenta sistemak emakumeei

lur pribatuak eskuratzea saihestu zien hein handi batean (Rowlandson, 1995, 309-311. or.). Lurraren zati handi bat aldi baterako kontzesioetan esleitu zitzairen estatu-eta administrazio-funtzio garrantzitsu jakin batzuk betetzen zituztenei: horrela, soldaduek lur-esleipen militarrek edo *kleroiak* jaso zituzten eta goi-funtzionarioek oparitutako jabetzak edo *doreiak* (Clarysse, 1979; Bresciani, 1983; Manning, 2009; Rowlandson, 2005, 254-262. or.). Ugarietak, *kleroiak*, lehenengo garaietako ptolomeotarrek eskaini zituzten, tropak eta mertzenarioak herrialdera erakartzeko (Saade, 2016, 6. or.). Lursail militar horiek, hasieran, ez ziren heredagarriak eta erregearen eskuetara itzultzen ziren soldadua hil ondoren, gero, beste militar bati emateko. Hala ere, gobernua ahultzen joan zenean eta armadaren mesedea mantentzeko beharra handitu zenean, poliki-poliki sistema zurrun hori makalduz eta jabetza pribatua sartuz joan zen. Horrela, K.a. II. mendearen erdialdean, esleipen militar horiek gizonezkoen lerroko herentziazko bihurtu ziren eta lurra eta honen ondoriozko betebeharrak militarra aitatik semeetara pasatzen hasi ziren, Egipton armada greko iraunkor baten presentzia ziurtatzeko eta atzerrian soldaduek errekrutatze beharra murrizteko. *Kleroiak*, beraz, erromatar lursail pribatuen gero eta antz handiagoa zuten. Hala ere, armadan zerbitzatzeko betebeharrak indarrean jarraitzen zuenez, emakumeen eskuetatik kanpo zeuden (Pomeroy, 1984, 149-151. or.). K.a. I. mendetik aurrera bakarrik, nebarik gabeko alabei utzi zitzairen gurasoen *kleroiak* heredatzen (adib., SB VIII 9790, Herakleopolis, K.a. 75-25).

Kleroiak titular askok —aberatsenek eta boteretsuenek, batez ere— ez zituzten lurak zuzenean lantzen, baizik eta alokairuan jartzen zituzten. Teorian, emakumeek lan hori beren gain hartzeko legezko oztoporik ez bazuten ere, errealitatea oso desberdina da, Pomeroyk (*Id.*) identifikatutako *kleroiak* 372 errentarrietatik 3 baino ez zirelako emakumeak. Lur publikoen edo errege-lurren (*basilikégé gé* garai horretan) egoera berdintsua zen: errege-lurrei lotutako 449 errentari edo maizterretatik, 7 baino ez ziren emakumeak (% 1,5). Ostera, andreak presentzia handiagoa zuten tenpluen lursail sakratuetan eta pribatuetan, batez ere Goi Egiptoko eskualde ez hain helenizatuetan: lehenengoei dagokienez, 539 errentaririk 49 (% 9,1) emakumezkoak ziren; bigarrenei dagokienez, 664tik 51 (% 7,7).

Pomeroyk (*Id.*), hain zuzen ere, iradokitzen zuen ptolomeotar garaian lurak tradizionalki gizonenak izateagatik, egoera hori denboran zehar mantendu zela, eta arrazoi horregatik ez garela errentari pribatu nahiz publiko gehiago —eta, beraz, emakume nekazariak— identifikatzeko gai erromatar garaiko papiroetan. Hala ere, azalpen horrek badiu eragozpen batzuk. Erromatar gobernuaren pean *kleroiak* jabetza pribatu aske bihurtu ziren, soldaduei lagatako erregearen domeinu izateari utziz, eta emakume asko lur-jabe bihurtu ziren (Bowman & Rathbone, 1992, 112. or.). Ondorioz, emakumeek garai berri horretan lursailen jabeak izateko gaitasun zabala izanda, ez lukete horien errentari izateko oztoporik izan beharko. Rowlandsonek (1999, 154-155. or.), berriz, emakume maizterren falta genero-izaerako aurreiritziei egotzi die. Haren ustez, emakume batzuek nekazaritza-kudeaketan jardun arren, lan fisikoak egiteko gai ez zirelako pertzepzioa nagusi zen gizartean. Halatan, lur-jabeek gizonezkoen baino ez zizkieten lurak alokatzen. Lurralde honetako ezkontza-akordio batek ideia hori berresten du. Halatan, K.o. 148-149. urteko Oxirrinkoko papiro batean (*P. Oxy. XLIX 3491*), emaztegaiaren gurasoen alabari zenbait lursail

oparitu zizkieten; hau da, lursail horien legezko jabetza alabari aitortu zitzaion. Hala ere, beste klausula batean suhiari, eta ez alabari, onartu zioten ondasun horien zaintza eta ustiapena (Yiftach-Firanko, 2003, 165. or.).

Egiptoko papiroek, beraz, modu nahiko argian iradokitzen dute nekazaritza gizonezkoen jarduera zela, esaten dutena modu literalean hartuz gero, noski. Hala ere, azken epaia eman aurretik, bide berriak urratzea interesgarria izan liteke, nahiz eta K.o. I-III. mendeetako Egiptotik urrun geratzen diren testuinguru kronologiko eta geografikoetan kokatu ahal diren. Hori dela eta, arreta handiz eta erne ibili behar dugu ondorioak formulatzerakoan.

2. Beste bide batzuk

2.1. Iturri ikonografikoak

Ikerketa Egiptoko lurraldean kokatzen denez, baliagarria izan daiteke iturri ikonografiko batzuen azterketatik hasia, kronologikoki asko alden du arren, eskualde horretan oso ugariak direlako. Hala ere, tentuz eta ikuspegi kritikoz ekin behar zaie interpretazio horiei; izan ere, ez da ahaztu behar irudikapen horiek hileta-irudiak direla gehienbat, eta, beraz, ez direla beti errealitatearen lekukotza fidagarriak. Aitzitik, ideia edo ikuskera erlijiosoak transmititzeko instrumentalizatutako interpretazio sinbolikoak dira (Sanjaume, 2006, 76. or.). Antzinako, Erdialdeko eta Erresuma Berriko hilobietako nekazari-irudikapenak aztertuta, generoan oinarritutako alde nabariak antzematen dira. Lehenik eta behin, irudikapen horietan, gizonezkoen irudiak emakumezkoenak baino askoz ugariagoak dira; bigarrenik, desberdintasunak daude sexu bakoitzak gauzatzen dituen jarduera eta labore motei dagokienez (Robins, 1996, 129-133. or.). Halatan, nekazaritza-egutegia erakusten duten eszenetan, golde eta ereintzatik hasi eta uztaraino, andreak oso paper mugatua dute gizonezkoekin alderatuta eta ekintza ezberdinetan parte hartzen dute.

Adibidez, Erresuma Berriko (K.a. 1550-1069) Sennedjem-en hilobiko nekazaritza-eszenak dituzten horma-pinturetan hildakoak, hots, gizonezkoak, egiten ditu lan gehienak eta astunenak (Bruyère, 1959, 38-39. or.; Sanjaume, 2006, 76. or.). Oratzearen eta ereintzaren garaian, Sennedjemek abelburuak gidatzen ditu lurra goldearekin lantzeko; Lineferti emazteak, berriz, atzetik jarraitzen dio saski batean gordetako haziak isuriz. Halaber, uzta-bilketan, Sennedjemek gari-oroak igotzen dituzte batekin moztzen dituen bitartean, emazteak galburuak saski batekin jasotzen ditu. Milurteko bat baino gehiago pasata, Ptolomeoren erregealdiaren hasieran (K.a. IV-III), Hermopoliseko Thoth-en apaiz goren baten (Petosiris) hilobian, eredu berdina errepikatzen duen nekazaritza buruzko erliebe ederra topa dezakegu (Lefebvre, 1924; Lichtheim, 1980, 44-54. or.; Rowlandson, 1998, 219. or.). Gizon bizardun eta zahar batek garia igotzen duen bitartean, emakume batek galburu-sorta txiki bat jasotzen du eta haur batek beste bat ematen dio.

Pinturetan emakumeak ez dira garia jotzen edo lanabes zorrotzak erabiltzen irudikatzen (Robins, 1996, 130. or.). Horren atzean arrazoi erritualik, ohiturarik edo usadiorik zegoen jakitea ez da erraza, baina ez dirudi kasualitate hutsa zenik.

Izan ere, horrelako tresnaren beharrik ez zuten labore batzuetan emakumezkoen parte-hartze handiagoa iradokitzen da. Halatan, Erresuma Berriko Nakhten hilobiko nekazaritza-gaietako pintoretan, gizonek jarduera guztiak egiten dituzte, lihoa erauztea izan ezik (Davies, 1917, 60-65. or.). Emakumeek beren eskuekin sustraitik ateratzen dituzte landareak, agian, esan bezala, lihoa erauzten delako eta moztu beharrik ez dagoelako. Hala ere, mahasgintzan, prozedura antzekoa izanda ere, Robinsek (1996, 130. or.) XVIII. dinastiako (K.a. 1575-1295) hilobi batean mahatsa biltzen ari zen emakume bat aurkitu bazuen ere, oro har, gizonezkoen okupazio gisa irudikatzen zela ondorioztatu zuen.

2.2. Literatura-iturri klasikoak

Literatura-iturri klasikoek aurkeztutako erretratu femeninoa askoz ere mugatuagoa eta espezifikagoa da, emazteen ekarpen ekonomikoa ugalketa eta etxea mantentzera mugatu behar dela uste duen diskurtsoa nagusitzen baita. Zeregin horiek etxe barruan bakarrik egiten dira, egoera fisiko eta moralarekin bat eginik (Medina-Quintana, 2017, 155. or.). Kontzepzio ideologiko irmo horrek Antzinate klasikoko literatura-lan gehienak uztartzen ditu, emakumeak garaiko nekazaritzan izan zuen paperari buruzko informazioa aurkitzea oztopatuz. Gainera, azpimarratu behar da ezen, Antzinaroan nekazaritza ekonomiaren oinarria izan arren, bai autore klasikoek, bai akademiko modernoek, bigarren mailan utzi zutela esparru hori, eta arreta gehiago eskaini zieten gai politikoei eta hiri-ekonomiari. Ondorioz, nekazaritzan aritzen ziren pertsona xumeak eta, batez ere, emakumeak baztertu eta ikusezin bihurtu dira (Larsson-Loven, 2019, 90. or.).

Hala ere, 200 urteko denbora-tartea betetzen duten Katon, Varron eta Kolumela idazleen agronomia-hitzarmenetan informazio erabilgarria topa daiteke. Horiek *villa*⁸ baten, funtzionamendu teoriko eta ideala, eta ez erreala, transmititzen duten arren eta esklaboek egindako jardueretan nagusiki zentratzen diren arren, emakume esklaboei esleitutako lanak emakume nekazari askeek gauzatuko zituzten jardueren isla izango lirakekeela sostenga daiteke. Halatan, azterketa xehe baten bidez, imajina daiteke zer zeregin espero zen emakume esklaboek nahiz askeek betetzea nekazaritza-ustiatagietan (Martínez-López & Mirón-Pérez, 2000, 33. or.).

Autore horien idazkiek, Egiptoko margoek bezala, dualtasun natural eta orokor bat jartzen dute agerian, non nekazaritza-ustiapenak osagai maskulinoa, baina baita femeninoa ere, eskatzen baitzuen (Martínez-López, 2002, 69. or.). Berezitasun horren adibide da *villicus* eta *villicaren* dualtasuna *villa* erromatarraren kudeaketan (Rubiera-Cancelas, 2010; Roth, 2004). *Villicusa* esklabo bat zen, landetxe bateko administratzaile nagusia, eta jabearen, hots, *pater familiasaren* eginkizunak hartzen zituen bere gain. Beraren zereginak hauek ziren: nekazaritza-jardueren gainbegiratze orokorra, esklaboen lanaren kontrola, landetxearen kontabilitatea eta merkataritza-salerosketak. *Villica*, bere aldetik, kudeaketa-funtzioak zituen esklaboa ere bazen, baina *villaren* barne-esparruan: «*Ea porro persuasissimum habere debebit aut in totum aut certe plurimum domi se morari oportere*» (Kolumela, *Rust.*, XII, 1.5)⁹. Biek

8. Erromatar landetxea.

9. «Berak, gainera, irmoki barneratua izan beharko du etxean geratu behar duela, dela erabat, dela denbora gehienez behintzat».

landetxea kudeatzen zuten, baina *vilica vilicusaren* menpe zegoen, erromatarren esklabotzan genero-hierarkia islatuz: «*Sed qualicumque villico contubernalis mulier assignanda est, quae contineat eum, et in quibusdam rebus tamen adiuvet*» (Kolumela, *Rust.*, I, 8)¹⁰. Hala ere, eta historiografia tradizionalan, *vilica vilicusaren* emaztea besterik ez zela uste izan den arren, berezko estatusa zuen langile gisa ulertu behar da, ez bakarrik gizon batekiko harremanari lotua (Roth, 2004, 102. or.). Halatan, elikagaien antolaketaz, etxeko lanak eta industria-jarduerak zaintzeaz (ehungintza edo elikagaien ekoizpena, esaterako) eta *villako* kideen ongizatea gainbegiratzeaz arduratzen zen.

Dualtasun zehatz hau orokortuz, gizonen eta emakumeen arteko bereizketa nabarmena agertzen da eta talde bakoitzari jarduera eta espazio bereizgarriak esleitzen zaizkio, gizarteak bi generoei esleitzen zizkien trebetasun eta ezaugarrietan oinarrituta. Gizonak baserriaren kanpoaldearekin edo landarekin lotzen ziren; emakumeak, berriz, barrualdearekin edo etxearekin. Ondorioz, emakumeei etxearen zaintza eta ardura zegokien, baita etxearen barruan gauzatzen ziren produkzio-jarduerak ere: produktuen biltegitratzea eta kontserbazioa, elikagaien elaborazioa, ehungintza, erreproduzioa edota haurren zaintza. Halaber, emakumeak lehenengo mendeko gisa irudikatzen dira. Emakumeek gauzatutako jarduera asko ereitea, garia jotzea edo biltzea bezain beharrezkoak izan arren, ez ziren lantzat hartzen zentzu formalean edo profesionalean, baizik eta emakumeek «modu naturalean» egin beharko lituzketen jardueratzat. Pertzepzio hori zela eta, haien ekarpena gutxitu edo gaitzetsi egiten zen —eta oraindik jarraitzen da egiten—, eta gizakiaren benetako lanaren «laguntza» gisa bakarrik ulertzen zen (Martínez-López & Mirón-Pérez, 2000, 35. or.).

Edozein kasutan ere, Rubiera Cancelasek (2010, 375. or.) dioen bezala, agronomo latindarren idatziek ez dute zehatz-mehatz deskribatzen nekazaritza-lanaren errealitatea; aitzitik, eredu idealizatua aurkezten dute. Horietan, zereginak argi eta garbi banatuta eta talde ezberdinei (gizonak, emakumeak, esklaboak) esleituta agertzen dira, banaketa hori naturala eta lana antolatzeko modurik egokiena izango balitz bezala. Ikuspegi horrek eraikuntza ideologiko bati erantzuten dio eta ez eguneroko bizitzaren deskribapen objektibo bati. Izan ere, Kolumelak berak (*Rust.*, XII, 3), ideario horren erakusle nagusietakoa denak, salbuespen horietako bat aipatzen du, agian kontraesan horretaz ohartu gabe:

*Pluviis vero diebus, vel cum frigoribus aut pruinis mulier sub dio rusticum opus obire non potuerit, ut ad lanificium reducatur praeparataeque sint et pectitae lanae, quo facilius iusta lanificio persequi atque exigere possit*¹¹.

Hala bada, testu horretatik ondorioztatzen da etxeko lanez edo etxe barruan egiten ziren lanez gain, emakumeek ere rol aktiboak zituztela landa kanpoko jardueretan, nahiz eta haien eginkizunak ez diren zehazten eta izaera ahulago bat egozten zaien,

10. «*Vilicusa* edozein dela ere, emakume bat egokitu behar diozu hura lasai edukitzeko eta, aldi berean, gauza batzuetan laguntzeko».

11. «Egun euritsuetan, edo hotzak edo izotzak emakumei landa-lanetan arrasean aritzea eragozten dienean, artileek prest eta kardatuta egon behar dute, lan egiteko prest, lan horretan errazago jardun ahal izateko eta beste lan batzuetan ez delegatzeko».

egun hotz eta euritsuetan etxean egotera behartzen dituen, gizonak ez bezala. Hots, erromatar ideal teorikoaren aurkakoa izan arren, praktikan, gizonezkoek ez ezik, andreak ere gauzatzen zituzten nekazaritza-lanak.

3. Isiltasunetatik abiatuta lanean aritzeko beharra

Orain arteko ondorio gisa esan liteke, iturri ikonografiko egiptoarrek eta literario erromatarrek, gizarte-dualtasun konplexua islatzen dutela, sakon errotuta dagoena genero-bereizketetan eta gizonen eta emakumeen artean argi eta garbi mugatutako okupazio-roletan, non lehenengoek zeregin fisiko neketsuenak eta gogorrenak egiten baitzituzten, eta bigarrenen zeregina haiei laguntzea baitzen. Hala ere, azpimarratu behar da irudikapen horiek konfigurazio idealei —sinbolikoei, moralei edo araei— erantzuten dietela eta ez direla eguneroko praktikaren deskribapen leialak; beraz, oso litekeena da emakumeek produkzio-esparruan zuten parte-hartze eraginkorra gutxiestea eta batzuetan ezkutatzea, hain zuzen ere, parte-hartze hori haien helburu ideologikoekin kontraesanean zegoelako. Edozein kasutan ere, papiroetan islatutakoa bezain zorrotza ez den errealitate baten oihartzunak ere jasotzen dituzte, emakumeek espazio bat hartzen baitute nekazaritza-munduan, nahiz eta haien parte-hartzea baztertua edo menderatua egon.

Bestalde, eskura dugun ebidentzia —izan literarioa, dokumentala edo ikonografikoa— ez da nahikoa emakumeek landa-ingurunean izan zituzten esperientziak eta bizimoduak berregiteko. Horregatik, beste ikerketa-metodo batzuk erabili behar dira, neurri handi batean inferentzia kontrolatuetan oinarritzen direnak. Hau da, eskuragarri dugun ebidentzia urritik —neurri handi batean zeharkakoa— abiatuta, arrazoibide logikoa erabiliz, ondorioak atera behar ditugu. Halako ikerketa-metodoa hainbat autorek aldarrikatu dute emakumeen historia idazteko orduan (adib.: Finley, 1965; Skinner, 1987; Larsson-Loven, 2019). Horien artean, Scheidel (1995 eta 1996) nabarmentzen da, haren ekarpenak orain arteko esanguratsuenetarikoak baitira emakume txiroen ekonomiaren arloan. Hark berak onartzen du Antzinateko emakumeen nekazaritza-rola ezin dela iturri tradizionalen bidez aztertu, eta isiltasunak eta hutsuneak behatzea eta interpretatzea gomendatzen du, garai hartako gizarte- eta ekonomia-baldintzei buruzko hausnarketen bidez (Scheidel, 1995, 202-203. or.; Martínez-López, 2002, 65-66. or.).

Erromatar Inperioa, eta Antzinateko munduaren zati handi bat, hiriaren inguruan antolatua bazegoen ere, biztanleriaren zati esanguratsu bat landa-eremuetan bizi zen eta nekazaritzaren mende zegoen, baita hiriguneetan ere. Hortaz, pentsa daiteke jende gehiena nolabait nekazaritza-jardueretan arituko zela, bai ekoizpenean, bai merkataritzan. Gainera, nabarmentzekoa da biztanleria gehiena, gizon zein emakume, biziraupenaren mugan bizi zela (Scheidel, 1995, 207. or.). Hortaz, emakumeek nekazaritzan parte hartzea ez zen faktore ideologikoen araberakoa, baizik eta pertsona bakoitzaren bizi-baldintzen araberakoa. Emakumeak etxeko esparrura eta ez-aktibotasunera mugatzen zituen ideia hegemonikoa bazegoen ere, eskema hori emakume behartsuen kasuan —eta gehienak horrelakoak ziren— soilik teoria-mailan gara zitekeen (Medina-Quintana, 2012, 155. or.). Familia-unitate txikienek emakumeen esfortzu handiagoa eskatuko zuten, zailtasun handiagoak

izango baitzituzten soberakinak sortzeko, langile gehiago kontratatzeko edo haien lurrak errentan emateko. Lur-jabe handiek, ordea, gaitasuna izango zuten langileak kontratatzeko edo errentan uzteko (Scheidel, 1995, 210. or.).

Autore klasiko batzuen testuek hipotesi hori berrets dezakete (*Ibid.*: 210-211. or.). Varronek (*Rust.*, I, 17. 2), adibidez, pobreziaren eraginez haurren laguntzarekin lurra landu behar zuten langileei buruz hitz egiten zuen, eta horrelako asko Asian, Egipton eta Ilirian bazeudela nabarmendu zuen. Era berean, nahiz eta nekazaritza-esparruari zuzenean erreferentziarik egiten ez dion iturri grekoa izan, Aristotelesek (*Pol.*, VI, 8.23) adierazi zuen behartsuek beren emazteak eta seme-alabak zerbitzari gisa erabili behar izaten zituztela, esklaboak erosteko aukerarik ez zutelako.

Egipto erromatarrean, nekazaritza ekonomiaren eta eguneroko bizitzaren oinarri nagusia zen. Biztanle gehienak, %75-80 inguru, Niloren haranean eta Deltan sakabanatutako herrixketan bizi ziren, eta landa-lanak egituratzen zuen komunitateen urteko erritmoa (Rathbone, 1990, 121. or.). Alexandria edo *nomoi*en hiriburuak bezalako hiri handiak baziren ere, egiptoarren mundua, funtsean, nekazarien mundua zen. Bizi-baldintzak apalak ziren: nekazari gehienak adobezko etxebizitzetan bizi ziren, lursail txiki samarrak zituzten, eta zerealetan, lekaleetan eta arrainetan oinarritutako dieta simple bat zuten (Lewis, 1983, 67-69. or.; Haug, 2021, 527-530. or.). Laborantza txikiak, errentamenduak, soldatapeko lanak eta bestelako jarduerak konbinatzen zituzten oinarrizko beharrak asetzeko. Biziraupen-mailatik gora edo, behintzat, apur bat gainera bizi ziren arren, egoera hori erraz desegonkortu zitekeen uzta txarraren, zerga-igoeren, osasun-krisien (antoninotar izurria, adibidez) edo gisako faktoreen aurrean (Rathbone, 1990; 114-119. or. Lewis, 1983, 68-69. or.; Langelotti, 2020, 230. or.). Landa-ingurune horretan, non etxeko unitatearen biziraupena talde-lanaren mende zegoen, zaila da imajinatzea lan egiteko adinean zeuden emakumeak nekazaritza-jardueretatik erabat kanpo egon zitezkeela. Aitzitik, behar ekonomikoek eta biziraupen-dinamikak lan horietan aktiboki parte hartzea eskatuko zuket.

Egiptoko populazioaren gehiengoak baliabide eskasak izanda, familia eta etxe gehienetan emakumeak nekazaritza ere arituko ziren. Beraiek egindako lanak gizonek egiten zituztenetatik ezberdinak izan zitezkeen arren, produktiboak ziren. Martínez López eta Mirón Pavónek (2000, 34. or.) ohartarazten duten bezala, «emakumeek burututako antolakuntza- eta kontrol-zereginak *villaren* funtzionamendua ahalbidetzen dute, haren iraupena bermatzen dute, eta bertan bizi direnen bizi-baldintzak hobetzen laguntzen dute». Beraz, landa-eremuko emakumeen etxe barruko jarduera ez zen bigarren mailako lana, baizik eta etxeko espazioaren kudeaketa aktibo eta estrategikoa, erabakiak hartzea, plangintza egitea eta erantzukizun soziala eskatzen baitzuen. Baina gainera, emakumeen zeregina ez zen soilik etxeko eremura mugatuko. Uzta-garai erabakigarrietan, bereziki ereite eta bilketan, iturri literarioek, baina batez ere ikonografikoek, erakusten dute emakumeek ere lan egiten zutela, adibidez, lurrak aratzen ziren lur irekietan haziak barreiatuz, ebakitako gari-adarrak bilduz eta biltegitatuz, eta liho-landareak erroitik ateraz.

gizonezkoen eremutzat hartzera jo zuen. Espero zen eta aurreikusten zen gizonak arduratuko zirela nekazaritza-lanez, badirudienez, arriskutsuagotzat eta neketsuagotzat jotzen zirelako. Ondorioz, lurrik gabeko familiek errentamendu-akordioak sinatzen zituztenean, gizonak agertzen ziren agerizko errentari edo kontratugile gisa, hau da, egingo zen lanaren legezko ordezkari gisa. Behin sinatuta, familiako kide guztiak ahal zuten heinean eta modu desberdinetan nekazari-lanetan arituko ziren.

Halatan, emakumeen ustezko presentziarik eza papiroetan ez litzateke literalki interpretatu beharko. Iturri literario eta ikonografikoetan topatutako zantzuen eta Egiptoko errealitate sozioekonomikoaren gain egindako inferentzia kontrolatuen bidezko azterketa sakonagoak emakumeen ekarpenaren eta erregistro ofizialen arteko deskonexio bat adierazten duela ematen du. Munduko leku askotan, Espainia modernoan barne, iturri ofizialek eta estatistika-datuek oraindik ez dute egiazki islatzen emakumeen papera landa-munduan, «batez ere, emakumeen lana ez delako modu formalean integratu gizarte-eredu tradizional batean, eta eredu horrek ez duelako emakumea bere egitura sozioekonomikoetan erabat txertatu nahi izan» (Dueñas Herrero & Serrano-Argüello, 2008, 21. or.). Hala, bada, alde kronologiko handia dagoen arren, neure buruari galdetzen diot ea iturri papirologikoez erakusten dutena ez ote den «emakumeek nekazaritza-ekonomiari [kasu honetan, egiptoarra] egiten dioten benetako ekarpenaren eta datu ofizialen agerpenaren [kasu honetan, papiroetan islatutako dokumentu legalak] arteko deskonexioa» (*Id.*).

Noski, ez da ahanzi behar emaitza horietako batzuk aieruzkoak direla, eta ez guztiz ukaezinak; batez ere, informazio-urritasuna dela eta, K.a. I. eta K.o. III. mendeetako Egiptotik denboran eta espazioan nabarmen urrundutako iturriak aurkeztu eta eztabaidatu direlako. Hala eta guztiz ere, erreferentzia horiek ezinbestekoak dira dokumentuen hutsuneak automatikoki bete ez daitezen historiografiarik tradizionalenak askotan errepikatutako emakume pasiboaren irudi estereotipatuarekin, hots, etxeko eremura mugatzen den eta lan domestikoetan, ugalketan eta hazkuntzan soilik jarduten duen emakumearekin. Rol horiek ikuspegi historiografiko batetik zalantzan jartzeak aukera ematen du aspaldiko generotopikoak zuzentzeko, emakumeen esperientzien aniztasuna ikusarazteko eta, zalantzarik gabe, narrazio historikoa aberasteko, eta, hartara, antzinako gizarteak hobeto ulertzen laguntzeko.

4. Papiro bildumak

P. Col. = *Columbia Papyri*.

- VIII: argtz. R.S. Bagnall, T.T. Renner & K.A. Worp, American Society of Papyrologists, Atlanta, 1990. 192-246 zk.
- X: argtz. R.S. Bagnall & D. Obbink. Scholars Press, Atlanta, 1996. 249-292 zk.

P. Mich. = *Michigan Papyri*.

- II: *Papyri from Tebtunis, Part I*, argtz., A.E.R. Boak. The University of Michigan Press, Ann Arbor, 1933. 121-128 zk.
- VIII: *Papyri and Ostraka from Karanis II*, argtz. Youtie, H.C. & Winter, J.G. University of Michigan Press, Ann Arbor, 1951. 464-52 zk.

P. Oxy. = *The Oxyrhynchus Papyri*.

- IV: argtz. B.P. Grenfell & A.S. Hunt, Egypt Exploration Fund, Londres, 1904. 654-839 zk.
- VI: argtz. B.P. Grenfell & A.S. Hunt, Egypt Exploration Fund, Londres, 1908. 845-1006 zk.
- XIV: argtz. B. P. Grenfell & A. S. Hunt, Egypt Exploration Fund, Londres, 1920. 1626-1777 zk.
- XVII: argtz. A. S. Hunt, Egypt Exploration Society, Londres, 1927. 2065-2156 zk.
- XXXIII: argtz. P.J. Parsons, J.R. Rea & E.G. Turner, Egypt Exploration Society, Londres, 1968. 2654-2682 zk.
- XLII: argtz. P.J. Parsons, Egypt Exploration Society, Londres, 1974. 2999-3087 zk.
- LVII: argtz. M.W. Haslam, H. El-Maghrabi & J.D. Thomas, Egypt Exploration Society, Londres, 1990. 3876-3914 zk.
- LXVII: argtz. R. A. Coles, N. Gonis, A. Nodar, D. Obbink, R. Stewart *et al.*, Egypt Exploration Society, Londres, 2001. 4545-4629 zk.

P. Princ. = *Papyri in the Princeton University Collections*.

- II: argtz. E.H. Kase, Jr. Princeton Legacy Library, Princeton, 1936. 15-107 zk.

P. Ryl. = *Catalogue of the Greek papyri in the John Rylands Library at Manchester*.

- II: *Documents of the Ptolemaic and Roman Periods*, argtz. J. de M. Johnson, V.

PSI = *Papiri greci e latini (Publicazioni della Società Italiana per la ricerca dei papiri greci e latini in Egipto)*.

- IX: dir. G. Vitelli & M. Norsa. Tipografia E. Arian, Florencia, 1929. 1001-1096 zk.

SB = *Sammelbuch griechischer Urkunden aus Aegypten*.

- V: argtz. E. Kiessling, F. Bilabel, H.A. Rupprecht *et al.* O. Harrassowitz, Heidelberg-Wiesbaden, 1934-55. 7515-8963 zk.
- VIII: argtz. E. Kiessling. O. Harrassowitz, Heidelberg, 1965-67. 9642-10208 zk.
- XII: argtz. E. Kiessling, F. Bilabel, H.A. Rupprecht *et al.* O. Harrassowitz, Wiesbaden, 1976-77. 10764-11263 zk.
- XX: argtz. E. Kiessling, F. Bilabel, H.A. Rupprecht *et al.* O. Harrassowitz, Wiesbaden, 1997. 4069-15202 zk.

5. Iturri literario klasikoak

- Aristoteles. *Política*. P. López Barja de Quiroga eta E. García Fernández sarrera, itzulpena eta oharra. Istmo, Madril, 2005.
- Katon, M.P. *Tratado de agricultura: fragmentos*. A. García-Toraño Martínez itzulpena. Biblioteca Clásica Gredos, Madril, 2012.
- Kolumela, L.J.M. *Los doce libros de agricultura. Vol. I*. C.J. Castoren itzulpena eta oharra; E.M. Aguilaren ohar luzeak. Obras Maestras, Bartzelona, 1959.
- Kolumela, L.J.M. *Los doce libros de agricultura. Vol. II*. C.J. Castoren itzulpena eta oharra; E.M. Aguilaren ohar luzeak. Obras Maestras, Bartzelona, 1959.
- Varron. *De las cosas del campo*. L.A. Hernández Miguelsen sarrera, itzulpena eta oharra. Akal, Madril, 2023.

6. Bibliografia

- Allam, S. (1990). Women as holders of rights in Ancient Egypt. *JESHO*, 33, 1-34. <https://doi.org/10.2307/3632040>

- Bagnall, R.S. (2011). The Finds of Papyri: The Archaeology of Papyrology. In R.S. Bagnall (Argtz.), *The Oxford Handbook of Papyrology* (14-169. or.). Oxford University Press.
- Bagnall, R.S. & Criboire, R. (2006). *Women's Letters from Ancient Egypt, 300 BC-AD 80*. The University of Michigan Press.
- Boak, A.E.R. (Argtz.) (1933). *Papyri from Tebtunis, Part I* (Nos. 121-128). The University of Michigan Press.
- Bowman, A.K. (2013). Agricultural Production in Egypt. In A. Bowman & A. Wilson (Argtz.), *The Roman Agricultural Economy: Organisation, Investment, and Production* (219-253. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199665723.003.0007>
- Bowman, A.K. & Rathbone, D. (1992). Cities and Administration in Roman Egypt. *JRS*, 82, 107-127.
- Bresciani, E. (1983). Registrazione catastale e ideologia politica nell'Egitto tolemaico. A completamento di «La spedizione di Tolomeo II in Siria in un ostrakon demotico inedito in Karnak». *EVO*, 6, 15-31. <https://www.jstor.org/stable/24232651>
- Bruyère, B. (1959). *La tombe no. 1 de Sennedjem à Deir el Médineh. Mémoires publiés par les membres de l'Institut français d'archéologie orientale 88*. Institut français d'archéologie orientale.
- Cid López, R.M. (2015). El género y los estudios históricos sobre las mujeres de la Antigüedad. Reflexiones sobre los usos y evolución de un concepto. *Revista de Historiografía*, 22, 25-49. <https://e-revistas.uc3m.es/index.php/REVHISTO/article/view/2645>
- Clarysse, W. (1979). Egyptian estate-holders in the Ptolemaic Period. In E. Lipi ski (Argtz.), *State and temple economy in the ancient Near East: Proceedings of the International Conference organized by the Katholieke Universiteit Leuven from the 10 th to the 14th of April 1978, Orientalia Lovaniensia Analecta 6*, ed. (731-743. or.). Departement Oriëntalistiek.
- Coles, R.A. (2007). Oxyrhynchus: A City and Its Texts. In A.K. Bowman, R.A. Coles, N. Gonis, D. Obbink eta P.J. Parsons (Argtz.), *Oxyrhynchus: A city and its texts* (3-17. or.). Egypt Exploration Society.
- Dickey, E. (2011). The Greek and Latin Languages in the Papyri. In R.S. Bagnall (Argtz.), *The Oxford Handbook of Papyrology* (149-169. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199843695.013.0006>
- Davies, N.G. (1917). *The Tomb of Nakht at Thebes. Publications of the Metropolitan Museum of Art, Egyptian Expedition. Robb de Peyster Tytus Memorial Series 1*. Metropolitan Museum of Art.
- Dixon, S. (2001). *Reading Roman Women: Sources, Genres, and Real Life*. Duckworth.
- Dueñas Herrero, L.J., & Serrano Argüello, N. (2008). Informe: El trabajo de la mujer en el mundo agrario. Ayer y hoy de las leyes sociales. In Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno de España (Argtz.), *Estudios Jurídicos de Derecho Agrario* (507-557. or.). Servicio de Publicaciones del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno de España.
- Finley, M.I. (1965). The Silent Women of Rome. *Horizon*, 7, 124-136.
- Fuentes Santibáñez, P. (2012). Algunas consideraciones en torno a la condición de la mujer en la Grecia Antigua. *Intus-Legere Historia*, 6(1), 7-18. <https://revistaschilenas.uchile.cl/handle/2250/10.15691/07198949.168>
- Gamsey, P., & Seller, R. (1991). *El Imperio Romano: economía, sociedad y cultura*. Crítica.
- Goñi Zabalegui, A. (2019). *Género y sociedad en el Egipto romano: Una mirada desde las cartas de mujeres: 10 (Deméter)*. Ediuño.

- Haug, B. (2021). Agriculture in Roman Egypt. In D. Hollander & T. Howe (Argtz.), *A Companion to Ancient Agriculture* (517-538. or.). John Wiley & Sons.
- Herklotz, F. (2012). Aegyptio Capta: Augustus and the Annexation of Egypt. In C. Riggs (Argtz.), *The Oxford Handbook of Roman Egypt* (526-542. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199571451.013.0002>
- Herrmann, J. (1958). *Studien zur Bodenpacht im Recht der graeco-ägyptischen Papyri*. Beck.
- Hobson, D.W. (1983). Women as property owners in Roman Egypt. *TAPA*, 113, 311-321. <https://doi.org/10.2307/284018>
- Hobson, D.W. (1984). The role of women in the economic life of Roman Egypt: a case of study from the first century Tebtunis. *EMC*, 28(3), 373-390.
- Husselman, E.M., Boak, A.E.R., & Edgerton, W. F. (Argtz.) (1944). *Papyri from Tebtunis, Part II* (Nos. 226-356). Legare Street Press.
- Jones, A.H.M. (1974). *The Roman Economy: Studies in Ancient Economic and Administrative History*. Rowman and Littlefield.
- Johnson, A.C. (1936). *Roman Egypt to the Reign of Diocletian*. The Johns Hopkins Press.
- Kehoe, D.P. (1992). *Management and investment on estates in Roman Egypt during the early empire (Pap. Texte Abh. 40)*. Dr. Rudolf Habelt GMBH.
- Jördens, A. (2012). Government, Taxation, and Law. In C. Riggs (Argtz.), *The Oxford Handbook of Roman Egypt* (56-67. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199571451.001.0001>
- Langellotti, M. (2020). *Village Life in Roman Egypt: Tebtunis in the First Century AD*. Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oso/9780198835318.001.0001>
- Larsson Lovén, L. (2019). The Invisible Women of Roman Agrarian Work and Economy. In J. Rantala (Argtz.), *Gender, Memory, and Identity in the Roman World* (89-104. or.). Amsterdam University Press. <https://doi.org/10.1515/9789048540099-007>
- Lefebvre, G. (1924). *Le Tombeau de Petosiris*, Imprimerie de l'Institut Français d'Archéologie Orientale.
- Lewis, N. (1983). *Life in Egypt under Roman Rule*. Oxford University Press.
- Lichtheim, M. (1980). *Ancient Egyptian Literature: A Book of Readings Vol. III: The Late Period*. University of California Press.
- Manning, G. (2009). *Land and Power in Ptolemaic Egypt. The Structure of Land Tenure*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511482847>
- Martin, C.J., Richter, T.S., Rowlandson, J., Takahashi, R., & Thompson, D. (2014). Leases. In J.G. Keenan, J.G. Manning, & U. Yiftach-Firanko (Argtz.), *Law and Legal Practice in Egypt from Alexander to the Arab Conquest* (239-400. or.). Cambridge University Press.
- Martínez López, C. (2002). Las relaciones de género en las unidades domésticas campesinas en la Roma antigua. In M.D. Molas i Font (Argtz.), *Vivir en femenino: estudios de mujeres en la antigüedad* (65-95. or.). Edicions Universitat de Barcelona.
- Martínez López, C., & Mirón Pérez, M^ªD. (2000). Mujeres esclavas en la Antigüedad: Producción y reproducción en las unidades domésticas. *Arenal*, 7(1), 5-40. <https://doi.org/10.30827/arenal.v7i1.16776>
- Medina Quintana, S. (2017). El trabajo de las mujeres en la Roma antigua. Reflexiones sobre género y economía. *Dialogues d'histoire ancienne*, 43(2), 153-176. <https://doi.org/10.3917/dha.432.0153>
- Melaerts, H. (2002). Aspects du rôle économique des femmes à Tebtynis à l'époque romaine. In H. Melaerts & L. Mooren, *Le rôle et le statut de la femme en Égypte hellénistique, romaine et byzantine: actes du Colloque International, Bruxelles - Leuven 27-29 novembre 1997* (209-264. or.). Peeters.
- Montevecchi, O. (1988). *La papirologia*. Vita e Pensiero.

- Montserrat D. (1996). *Sex and Society in Graeco-Roman Egypt*. Kegan Paul International.
- Pedregal Rodríguez, M.A. (2011). La Historia de las Mujeres & la Historia Antigua en España: Balance historiográfico (1980-2008). *Dialogues d'histoire ancienne*, 37(2), 119-160. <https://doi.org/10.3917/dha.372.0119>
- Pestman, P.W. (1961). *Marriage and Matrimonial Property in Ancient Egypt: A Contribution to Establishing the Legal Position of the Woman*. *Papyrologica Lugduno-Batava IX*. Brill.
- Pierce, R.H. (1968). Grapheion, catalogue, and library in Roman Egypt. *Symbolae Osloenses*, 43, 65-79. <https://doi.org/10.1080/00397676808590601>
- Pomeroy, S.B. (1984). *Women in Hellenistic Egypt*. Schocken Books. <https://doi.org/10.2307/294724>
- Pomeroy, S.B. (1991). The study of women in antiquity: Past, present, and future. *The American Journal of Philology*, 112(2), 263-268.
- Rathbone, D.W. (1990). Villages, Land and Population in Graeco-Roman Egypt. *Proceedings of the Cambridge Philological Society*, 36, 103-142. <https://www.jstor.org/stable/44696684>
- Rathbone, D.W. (2006). Poverty and population in Roman Egypt. In M. Atkins & R. Osborne (Argtz.), *Poverty in the Roman World* (100-114. or.). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511482700.007>
- Rathbone, D.W. (2013). The Romanity of Roman Egypt: A faltering consensus? *JJurP*, 43, 73-91.
- Robins, G. (1996). *Las mujeres en el Aniguo Egipto* (Traducción de M. V. García Quíntela). Akal Universitaria.
- Rowlandson, J. (1995). Beyond the polis: women and economic opportunity in early Ptolemaic Egypt. In A. Powell (Argtz.), *The Greek World* (301-322. or.). Routledge.
- Rowlandson, J. (1996). *Landowners and Tenants in Roman Egypt: The Social Relations of Agriculture in the Oxyrhynchite Nome*. Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oso/9780198147350.001.0001>
- Rowlandson, J. (1998). *Women and Society in Greek and Roman Egypt: a Sourcebook*. Cambridge University Press.
- Rowlandson, J. (1999). Agricultural Tenancy and Village Society in Roman Egypt. In A.K. Bowman & E. Rogan (Argtz.), *Agriculture in Egypt, From Pharaonic to Modern Times* (139-158. or.). British Academy - Oxford University Press.
- Rowlandson, J. (2005). The organisation of public land in Roman Egypt. *CRIPEL*, 25, 173-196.
- Roth, U. (2004). Inscribed meaning: the vilica and the villa economy, *Papers of the British School at Rome*, 72, 101-124. <https://doi.org/10.1017/S0068246200002683>
- Rubiera Cancelas, C. (2010). *Vilicus et vilica* estereotipos masculinos y femeninos de la población esclava en la literatura de los agrónomos grecolatinos. *Arenal*, 17(2), 351-377. <https://doi.org/10.30827/arenal.v17i2.1454>
- Sanjaume, M.S. (2006). *La tomba de Sennedjem a Deir-el-Medina TT 1* [Doktore-tesia, Universitat de Barcelona]. *TDX (Tesis Doctorals en Xarxa)*. <https://www.tdx.cat/handle/10803/2595#page=1>
- Scheidel, W. (1995). The Most Silent Women of Greece and Rome: Rural Labour and Women's Life in the Ancient World (I). *Greece & Rome*, 42(2), 202-217. <https://www.jstor.org/stable/643231>
- Scheidel, W. (1996). The Most Silent Women of Greece and Rome: Rural Labour and Women's Life in the Ancient World (II). *Greece & Rome*, 43(1), 1-10. <https://www.jstor.org/stable/643080>

- Skinner, M. (Argtz.) (1987). *Rescuing Crewilckusa: New Methodological Approaches to Women in Antiquity = Helios*, 13. Texas Tech University Press.
- Turner, E.G. (1952). Roman Oxyrhynchus. *JEA*, 38, 78-93.
- Turner, E.G. (2007). Roman Oxyrhynchus. In A.K. Bowman, R.A. Coles, N. Gonis, D. Obbink & P. J. Parsons (Argtz.), *Oxyrhynchus: A city and its texts* (141-154. or.). Egypt Exploration Society. <https://doi.org/10.1177/030751335203800110>
- Urrutia, G. (2024). *La capacidad económica de las mujeres en el nomo oxirrinquita. Un estudio desde las fuentes papirológicas (siglos I a. C. III d. C.)* [Argitaratu gabeko doktorego-tesia, EHU].
- Van Minnen, P. (2011). The Future of Papyrology. In R.S. Bagnall (Argtz.), *The Oxford Handbook of Papyrology* (644-660. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199843695.013.0027>
- Yiftach-Firanko, U. (2003). *Marriage and marital arrangements: a history of the Greek marriage document in Egypt, 4th century BCE-4th century CE. Münchener Beiträge zur Papyrusforschung und antiken Rechtsgeschichte, Heft 93*. Verlag C.H. Beck.
- Yiftach-Firanko, U. (2020). Law in Ptolemaic and Roman Egypt. In E.M. Harris & M. Canevaro, *The Oxford Handbook of Ancient Greek Law* (version online). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199599257.013.11>